**ACUERDO POR EL QUE SE APRUEBA EL REGLAMENTO DE RÉGIMEN INTERIOR DEL INSTITUTE OF SMART CITIES, DE LA UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA. (ISC)**

Por Acuerdo de 27 de mayo de 2014, el Consejo de Gobierno de la Universidad Pública de Navarra aprobó la Normativa reguladora de los Institutos de Investigación de la Universidad.

Al amparo del referido Acuerdo de 27 de mayo de 2014, el Consejo de Gobierno de la Universidad, mediante Acuerdo de 25 de noviembre de 2014, creó el Institute of Smart Cities de la Universidad Pública de Navarra. Este Acuerdo establece la composición, las líneas prioritarias de investigación y la organización interna del instituto, de conformidad con lo establecido en su memoria de Creación.

El Consejo del Institute of Smart Cities (ISC) de la Universidad Pública de Navarra, en sesión celebrada el día 6 de mayo de 2015, aprobó la propuesta del Reglamento de régimen interior para su posterior sometimiento a la aprobación por el Consejo de Gobierno, en virtud de lo dispuesto en el artículo 20, apartado o) de los Estatutos de la Universidad Pública de Navarra.

La propuesta de Reglamento se ajusta en cuanto a su composición, órganos del instituto, objeto, funciones y fines al Acuerdo de Creación del Institute of Smart Cities (ISC) y a la Normativa reguladora de los Institutos de Investigación de la Universidad Pública de Navarra.

Informada favorablemente la propuesta del Reglamento de régimen interior del Institute of Smart Cities, de la Universidad Pública de Navarra, (ISC).

A propuesta del Consejo del Institute of Smart Cities, el Consejo de Gobierno en sesión celebrada el día 29 de septiembre 2015

**ERABAKIA, NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOKO INSTITUTE OF SMART CITIES INSTITUTUAREN BARNE ERAENTZAREN ARAUTEGIA ONESTEN DUENA (ISC)**

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Gobernu Kontseiluak, 2014ko maiatzaren 27an hartutako Erabakian, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Ikerketa Institutuen Araudia onetsi zuen.

Aipatu 2014ko maiatzaren 27ko Erabakiaren babesean, Unibertsitatearen Gobernu Kontseiluak, 2014ko azaroaren 25eko erabakiaren bidez, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Institute of Smart Cities institutua sortu zuen. Erabaki honek Institutuaren osaera, ikerketa-ildo nagusiak eta institutuaren barne-antolamendua ezartzen du, sortzeko txostenak ezartzen duenarekin bat etorriz.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Institute of Smart Cities (ISC) institutuaren Batzordeak, 2015eko maiatzaren 6an egindako bileran, Barne Eraentzaren Arautegiaren proposamena onetsi zuen, gero Gobernu Kontseiluak onets zezan, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren Estatutuetako 20. artikuluko c) atalak ezartzen duenaren arabera.

Arautegi proposamena bat dator osaerari, institutuaren organoei, helburuei, eginkizunei eta xedeei dagokienez, Institute of Smart Cities (ISC) institutua Sortzeko Erabakiak ezartzen duenarekin, baita Nafarroako Unibertsitate Publikoko Ikerketa Institutuen Araudiak ezartzen duenarekin ere.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko Institute of Smart Cities (ISC) institutuaren Barne Eraentzaren Arautegiaren proposamenaren aldeko txostena edukirik,

Institute of Smart Cities institutuaren Batzordeak proposaturik, hona Gobernu Kontseiluak, 2015eko irailaren 29an egindako bileran, hartu duen

**ACUERDA**

Primero.- Aprobar el Reglamento de régimen interior del Institute of Smart Cities, de la Universidad Pública de Navarra, (ISC), tal y como figura en el Anexo de este Acuerdo.

Segundo.- Publicar el presente Acuerdo en la página web de la Universidad.

**ERABAKIA**

Lehena.- Nafarroako Unibertsitate Publikoko Institute of Smart Cities (ISC) institutuaren Barne Eraentzaren Arautegia onestea, Erabaki honen eranskinean azaltzen den bezala.

Bigarrena.- Erabaki hau Unibertsitatearen web-orrialdean argitaratzea.

EL PRESIDENTE / BATZORDEBURUA

Alfonso Carlosena
Rector /Errektorea

ANEXO

# INSTITUTE OF SMART CITIES

UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA

## Reglamento

(Aprobado por el Consejo del Instituto el 6 de Mayo de 2015)

## Artículo 1. Denominación y Marco legal

Con la denominación de Instituto de Smart Cities-ISC (Institute of Smart Cities en inglés), en adelante ISC, se constituye en Pamplona un Instituto de Investigación propio de la Universidad Pública de Navarra, en adelante UPNA, que se regula según lo establecido por la Ley Orgánica de Universidades, por los Estatutos de la UPNA, por la Normativa de Institutos de Investigación aprobada en Consejo de Gobierno el 27 de Mayo de 2014 (BON 12/06/2014), y por el presente Reglamento.

## Artículo 2. Objeto y fines

1. Se establecen como fines esenciales del ISC la promoción de la investigación básica y orientada y el impulso de iniciativas de innovación tecnológica mediante la colaboración sostenida con el tejido empresarial. Asimismo, se establece como un fin fundamental del ISC la configuración de un centro de investigación referente nacional e internacional en las líneas de investigación que le son propias de forma que sirva de foco de atracción de nuevas empresas intensivas en tecnología, así como de investigadores tanto experimentados como en formación.
2. Consecuentemente a estos fines, se establecen como objetivos prioritarios los siguientes:
   a. El fomento de la investigación de calidad, incidiendo especialmente en los aspectos científicos y tecnológicos de la misma y en su carácter aplicado.
   b. La transferencia a la sociedad, y en particular al entorno industrial, de las tecnologías avanzadas existentes y de las desarrolladas en el propio Instituto.
   c. El aprovechamiento de los recursos de la Universidad mediante la utilización conjunta de la infraestructura disponible, potenciando los procesos de captación de recursos comunes y el uso de servicios de apoyo compartidos.
   d. La potenciación de la investigación individual y conjunta de los investigadores que lo componen, en especial las relacionadas con las líneas definidas en sus planes estratégicos.
   e. El incremento de la cooperación con empresas en investigación, desarrollo e innovación, dentro de las áreas propias del Instituto.
   f. La cooperación con otros Centros, Departamentos e Institutos de Investigación de la UPNA y de otras entidades públicas o privadas, nacionales o internacionales, en el ámbito de sus competencias.
   g. La consolidación de una referencia de calidad en la actividad investigadora tanto en Navarra como a nivel nacional e internacional.

## Artículo 3. Ámbito y Funciones

1. El ámbito funcional de actuación será el de la investigación básica y orientada dentro de las áreas o líneas específicas de investigación definidas en su memoria de creación.
2. Son funciones del ISC:
   a. La definición y ejecución de proyectos de investigación tratando de aprovechar las sinergias de sus miembros mediante la colaboración entre investigadores y grupos.
   b. La búsqueda de financiación pública o privada para el sostenimiento de las líneas de investigación y la ejecución de proyectos, y del funcionamiento del propio Instituto.
   c. La definición, desarrollo y evaluación de sus planes de investigación, desarrollo e innovación técnica, de acuerdo con los planes generales de investigación de la UPNA.
   d. La celebración de contratos con personas y entidades públicas o privadas en los términos establecidos en la legislación específica, los Estatutos de la UPNA, y los reglamentos que los

desarrollan.

e. La administración del presupuesto y de los medios materiales que les sean asignados por la Universidad.

f. Cualesquiera otras funciones que, conforme a la ley, le asignen los Estatutos y normativas de la Universidad.

## Artículo 4. Configuración y Composición del ISC

1. Podrán formar parte del Instituto los siguientes tres tipos de investigadores:
    a. Investigadores Propios
    b. Investigadores Colaboradores
    c. Investigadores en Formación
2. Los Investigadores Propios serán necesariamente personal docente e investigador con vinculación permanente a la UPNA. Deberán acreditar la posesión de, al menos, dos evaluaciones positivas de la actividad investigadora. El último tramo deberá estar activo.
3. El número mínimo de Investigadores Propios del Instituto será de 20. El número medio de sexenios, referido al total de miembros propios, deberá ser, como mínimo, de 2,5.
4. Los investigadores que se adscriban al instituto en los tipos a) y b) anteriores deberán acreditar una trayectoria investigadora acreditada en el ámbito de actuación del instituto, o la voluntad inequívoca de confluir en él.
5. Tendrán la consideración de Investigadores Colaboradores aquellos que, cumpliendo las condiciones y criterios para ser propios, no puedan acceder a esa categoría debido a que su inclusión rebajaría el ratio de 2,5 sexenios por miembro propio. Cuando, en función del número total de sexenios del Instituto, les sea posible acceder a la categoría de Investigadores Propios, deberán presentar su solicitud, que será aprobada por el Consejo del Instituto.
6. El personal Investigador en Formación estará adscrito al Instituto durante su periodo de formación, pudiendo optar a las categorías de Investigador Propio o Investigador Colaborador cuando cumpla los requisitos exigidos por la normativa

## Artículo 5. Procedimiento y Normas de admisión

### Para Investigadores Propios

1. La admisión de nuevos Investigadores Propios que no figuran en la Memoria de Creación, deberá ir precedida de una solicitud del interesado dirigida al Secretario del Instituto en la que se incluya al menos su curriculum vitae y una breve memoria justificando el interés por la incorporación al instituto . El Director del Instituto recabará un informe confidencial razonado de dos miembros propios, en el que deberá hacerse referencia explícita a la adecuación del perfil del candidato a las líneas de investigación del ISC.
2. La admisión deberá ser aprobada en el Consejo del Instituto por mayoría simple en votación secreta, en un plazo no superior a los tres meses desde la fecha de solicitud, siendo el criterio fundamental el de la adecuación del curriculum a las líneas de investigación del Instituto.
3. Los solicitantes deberán necesariamente cumplir las condiciones a las que hace referencia el artículo 4.2. Tras su admisión, el instituto deberá seguir verificando la condición a la que hace referencia el artículo 4.3. De no ser así, el solicitante sería considerado automáticamente como Investigador Colaborador hasta que las condiciones permitan su admisión definitiva como Investigador Propio, lo que tendrá lugar por riguroso orden de solicitud en caso de que hubiera varios candidatos en las mismas condiciones.

4. Un Investigador Propio podrá cesar en su pertenencia al Instituto por voluntad propia, notificándolo en ese caso al Secretario del Instituto, o por decisión, por mayoría simple en votación secreta, del Consejo del Instituto. También cesará en su pertenencia al Instituto aquel Investigador Propio que deje de tener vinculación permanente a la Universidad Pública de Navarra o cuyo último tramo de investigación deje de estar activo. En este último caso, cuando concurran causas extraordinarias como pueden ser baja por enfermedad prolongada, maternidad o excedencia, la Comisión Ejecutiva del Instituto podrá aprobar mantener transitoriamente la condición de Investigador Propio durante, al menos, un año.

**Para Investigadores Colaboradores**

5. La admisión de Investigadores Colaboradores deberá ir precedida de una solicitud del interesado dirigida al Secretario del Instituto en la que se incluya al menos el curriculum vitae y una breve memoria motivando el interés por la incorporación al instituto. Los Investigadores Colaboradores deberán ser necesariamente personal de plantilla de la Universidad Pública de Navarra.
6. Para ser admitido como investigador colaborador el candidato deberá acreditar la posesión de al menos un tramo de investigación evaluado positivamente, que ha de encontrarse vivo, o caso de no estar en disposición de haberlo solicitado, méritos equivalentes en los últimos seis años de actividad investigadora ininterrumpida. Además el curriculum del candidato deberá estar relacionado con las líneas de investigación del instituto.
7. El Director del Instituto recabará un informe confidencial razonado de dos miembros propios, en el que deberá hacerse referencia explícita a la adecuación del perfil del candidato a las líneas de investigación del ISC, y deberá valorarse en su caso la equivalencia de los méritos presentados a los de un tramo de evaluación investigadora.
8. La admisión deberá ser aprobada en el Consejo del Instituto por mayoría simple en votación secreta, en un plazo no superior a los tres meses desde la fecha de solicitud.
9. Un Investigador Colaborador podrá cesar en su pertenencia al Instituto por voluntad propia, notificándolo en ese caso al Secretario del Instituto, o por decisión, por mayoría simple en votación secreta, del Consejo del Instituto. También cesará en su pertenencia al Instituto aquel Investigador Colaborador que deje de pertenecer a la plantilla de la Universidad Púlbica de Navarra o cuyo último tramo de investigación deje de estar activo. En este último caso, cuando concurran causas extraordinarias como pueden ser baja por enfermedad prolongada, maternidad o excedencia, la Comisión Ejecutiva del Instituto podrá aprobar mantener transitoriamente la condición de Investigador Colaborador durante, al menos, un año.

**Para Investigadores en Formación**

10. Los Investigadores en Formación deberán ser estudiantes de doctorado de la Universidad Pública de Navarra. A su vez, su tutor o director deberá ser Investigador Propio o Investigador Colaborador.
11. La solicitud de admisión, realizada por el candidato y dirigida al Secretario del Instituto, deberá ser avalada por dos investigadores propios o colaboradores. La admisión deberá ser aprobada en el Consejo del Instituto por mayoría simple en votación secreta, en un plazo no superior a los tres meses desde la fecha de solicitud.
12. Un Investigador en Formación podrá cesar en su pertenencia al Instituto por voluntad propia, notificándolo en ese caso al Secretario del Instituto, o por decisión, por mayoría simple en votación secreta, del Consejo del Instituto. También cesará en su pertenencia al Instituto aquel Investigador en Formación que deje de ser estudiante de doctorado de la Universidad Pública de Navarra.
13. Cuando un Investigador en Formación adquiera la condición de doctor, podrá solicitar el paso a Investigador Colaborador, para lo cual bastará con que aporte su curriculum, sin necesidad de recabar los informes a los que hace mención el apartado 5.7. Con objeto de realizar estos trámites, al Investigador en Formación que, como consecuencia de la obtención del título de Doctor, solicite

el paso a Investigador Colaborador, se le mantendrá la condición de pertenencia al Instituto durante 6 meses.

## Artículo 6. Derechos y Obligaciones de los miembros del Instituto

### Son derechos de todos los Investigadores del Instituto

a. Participar en las actividades organizadas por el Instituto.
b. Ser informados de las decisiones tomadas por sus órganos, o de otras que como miembros del Instituto les afecten.
c. Proponer actividades dentro de las líneas de actuación del Instituto.
d. Plantear quejas o sugerencias para la mejora del funcionamiento del Instituto ante sus órganos.
e. Utilizar el nombre y logotipo del Instituto en publicaciones y comunicaciones

Son obligaciones de todos los investigadores del Instituto

a. Contribuir, mediante el desarrollo de su actividad investigadora, a los fines del Instituto, y a su prestigio.
b. Procurar la máxima colaboración con otros miembros del Instituto en proyectos o actividades de investigación que se realicen en su seno.
c. Difundir los resultados de su investigación, tanto en el ámbito científico-técnico como empresarial y social.
d. Utilizar la doble filiación UPNA (o Departamento) e Institute of Smart Cities en aquellas publicaciones y trabajos que se realicen dentro de las líneas de actividad del Instituto.
e. Suministrar al equipo de dirección del Instituto la información sobre sus actividades que éstos les requieran.
f. Participar en los procesos de evaluación realizados en el Instituto.
g. Acatar los acuerdos del Consejo de Instituto.
h. Respetar lo previsto en este Reglamento y las demás normas que constituyen el marco legal del Instituto.

## Artículo 7. Órganos de Gobierno

1. Son órganos de gobierno del Instituto, el Consejo del Instituto y el Director del Instituto.
2. El Consejo del Instituto es el órgano de gobierno ordinario del mismo y estará compuesto por todos los Investigadores Propios del Instituto. Sus funciones son:
    a. Proponer al Rector el nombramiento y cese del Director del Instituto.
    b. Aprobar la adscripción y desadscripción de miembros del Instituto.
    c. Aprobar el Plan de Actuación anual, la Memoria de Actividades y el Informe de altas y bajas, previsto en la normativa de la UPNa.
    d. Aprobar las líneas de investigación que se lleven a cabo en el ámbito del Instituto.
    e. Planificar sus actividades de investigación, desarrollo, difusión, divulgación, asesoramiento e innovación científica y técnica.
    f. Aprobar y llevar a cabo la evaluación de actividades realizadas en el seno del Instituto
    g. Aprobar el destino de los fondos y recursos que le sean asignados para su funcionamiento.
    h. Elaborar el Reglamento de Funcionamiento.
    i. Otras funciones que le sean asignadas por la normativa de la Universidad.
3. El Consejo del Instituto podrá actuar en Pleno o a través de la Comisión Ejecutiva, compuesta por el

Director del Instituto, el Subdirector, el Secretario y cinco investigadores propios del Instituto, propuestos por el Director y nombrados en votación por el Consejo del Instituto. Serán funciones de la Comisión Ejecutiva:

a. Aprobación, ad cautelam, de las solicitudes de admisión de Investigadores Propios. Estas solicitudes deberán ser aprobadas definitivamente en la sesión del Consejo del Instituto inmediatamente posterior.
b. Aprobación, ad cautelam, de las solicitudes de admisión de Investigadores Colaboradores e Investigadores en Formación. Estas solicitudes deberán ser aprobadas definitivamente en la sesión del Consejo del Instituto inmediatamente posterior.
c. Elaboración de informes
d. Asesoramiento al Equipo Directivo del ISC
e. Asistencia a reuniones en nombre del ISC
f. Toma de decisiones, ad cautelam, de temas urgentes
g. Cualesquiera otras funciones que el Equipo Directivo o el Consejo del Instituto le puedan encomendar

4. El Director del Instituto es la persona que representa al Instituto y preside su Consejo. Será nombrado por el Rector a propuesta del Consejo del Instituto, de entre sus Investigadores Propios. Deberá acreditar la posesión de al menos tres evaluaciones positivas de la actividad investigadora. El mandato tendrá una duración de cuatro años. Podrá ser cesado a propuesta del Consejo o a petición propia, permaneciendo en funciones hasta la toma de posesión de un nuevo director.
5. El Director del Instituto nombrará, entre los investigadores propios, al Subdirector del Instituto que le asistirá y sustituirá en caso de ausencia o enfermedad. Cesará a petición propia, por decisión del Director o cuando concluya el mandato del Director que le propuso. Permanecerá en funciones hasta la toma de posesión del nuevo Subdirector.
6. El Director del Instituto nombrará, entre los investigadores propios, al Secretario del Instituto. Cesará a petición propia, por decisión del Director o cuando concluya el mandato del Director que le propuso. Permanecerá en funciones hasta la toma de posesión del nuevo secretario. Entre sus funciones se incluyen:
   a. Asistir al Director y desempeñar las funciones que éste le encomiende.
   b. Actuar como Secretario del Consejo del Instituto, siendo responsable de levantar actas de las reuniones y dar fe de los acuerdos.
   c. Expedir los certificados y tramitar los procedimientos de su competencia.
   d. Dar publicidad a los acuerdos del Consejo del Instituto.
   e. Cualesquiera otras que le atribuya el Director.
7. El Consejo del Instituto podrá acordar la creación de grupos de trabajo ad-hoc para elaborar propuestas o informes en relación con la actividad del instituto.
8. El Consejo del Instituto podrá acordar la creación de Comités externos científicos o empresariales para asesorar sobre el funcionamiento del Instituto.

### Artículo 8. De las sesiones del Consejo del Instituto

El Consejo del Instituto se reunirá:

1. En sesión ordinaria al menos una vez cada seis meses y, en todo caso las que resulten necesarias para el cumplimiento de las actuaciones derivadas de lo dispuesto en el artículo 5 de este reglamento.
2. Con carácter extraordinario, en los casos de urgencia.

## Artículo 9. Convocatoria de las sesiones

1. La convocatoria del Consejo del Instituto corresponde al Director del mismo.
2. La convocatoria deberá ser notificada a los miembros del Consejo con una antelación mínima de 5 días hábiles en el caso de sesiones ordinarias y con, al menos 48 horas de antelación, en el caso de las sesiones extraordinarias. Respecto al plazo referido en horas, se excluirán del cómputo del mismo los domingos y los días festivos.
3. La notificación deberá formalizarse por cualquier medio que pueda acreditar que el miembro del Consejo ha tenido conocimiento del contenido de la convocatoria.

## Artículo 10. Orden del Día

1. La convocatoria del Consejo del Instituto se acompañará siempre del Orden del Día, que será fijado por el Director del Instituto, teniendo en cuenta, en su caso, las peticiones de los demás miembros del Consejo formuladas con la debida antelación.
2. Para que resulte exigible la inclusión de algún punto en el orden del día de las sesiones, deberán suscribir la petición, al menos una quinta parte de sus miembros.
3. El orden del día debe ser explícito, específico y concreto y acompañado por la información pertinente.
4. El orden del día de las sesiones ordinarias deberá incluir como punto final el de Ruegos y Preguntas, en los que no podrá adoptarse ningún acuerdo.
5. No podrán ser objeto de deliberación o acuerdo asuntos que no figuren en el orden del día, salvo que estén presentes todos los miembros del Consejo del Instituto y sea declarada la urgencia del asunto por el voto favorable de la mayoría.

## Artículo 11. Asistencia a las sesiones

El Director del Instituto podrá invitar a las sesiones del Consejo del Instituto o a puntos de las mismas, a personas implicadas en sus decisiones o cuya información se considere de interés. También podrá invitar a los Investigadores Colaboradores e Investigadores en Formación.

## Artículo 12. Válida Constitución

1. El Consejo del Instituto quedará válidamente constituido a efectos de celebración de sesiones, deliberación y adopción de acuerdos, en primera convocatoria si están presentes el Director, el Secretario y la mitad, al menos de sus miembros.
2. En segunda convocatoria, que se realizará junto a la primera, en un plazo, no superior a una hora después de la primera, bastará con la presencia del Director, Secretario y un tercio de los miembros del Consejo.
3. No obstante, el Consejo quedará válidamente constituido aun cuando no se hubieran cumplido los requisitos de la convocatoria, cuando se hallen reunidos todos los miembros y así lo acuerden por unanimidad.

## Artículo 13. Adopción de Acuerdos

1. Los acuerdos se adoptarán por mayoría simple, excepto en los supuestos en que por exigencia normativa requieran otra mayoría.
2. Las decisiones podrán ser:

a. Por asentimiento, a propuesta del Director, cuando ningún miembro del Consejo haya formulado objeciones.
b. Votación simple y pública.
c. Votación secreta cuando así lo establezca la normativa vigente o cuando lo decida el Director a iniciativa propia o a petición de cualquier miembro del Consejo del Instituto.

### Artículo 14. Actas de las sesiones.

1. De cada sesión, el Secretario levantará acta que contendrá la relación de los asistentes, las circunstancias de lugar y tiempo en que se ha celebrado la sesión, el orden del día, la forma y resultado de las votaciones, así como los acuerdos y resoluciones adoptados.
2. Todo miembro del Consejo del Instituto tiene derecho a hacer constar en acta sus manifestaciones, siempre que así lo indique durante la sesión y las presente por escrito al Secretario, antes de la finalización de la sesión, adjuntándose al acta.
3. Los borradores de las actas serán enviados a los miembros del Consejo antes de la convocatoria del Consejo siguiente. Las actas aprobadas estarán a disposición de todos los miembros del Instituto.
4. Cualquier miembro del Consejo podrá exigir la lectura de toda o parte del acta en la sesión correspondiente de la misma. La aprobación del acta tendrá lugar en sesión posterior del Consejo, salvo casos de urgencia. Las rectificaciones que los miembros del Consejo deseen realizar antes de la votación para la aprobación del acta se incluirán, si las aprueba el Consejo, en el acta correspondiente que pasará a definitiva. Tras las rectificaciones admitidas se someterá el acta a la aprobación del Consejo.

### *Disposición Adicional*

Las menciones genéricas en masculino que aparecen en el articulado del presente Reglamento se entenderán referidas también a su correspondiente femenino.

### *Disposición Final*

El presente Reglamento entrará en vigor tras su aprobación por parte del Consejo de Gobierno de la Universidad Pública de Navarra. Cualquier modificación posterior deberá ser aprobada por el Consejo del Instituto y elevada, para su aprobación, al Consejo de Gobierno de la Universidad.

ERANSKINA

# INSTITUTE OF SMART CITIES

NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOA

## Arautegia

(Institutuko Kontseiluak 2015eko maiatzaren 6an onetsia)

## 1. artikulua. Izena eta Lege esparrua

Smart Cities-en Institutua-ISC izenarekin (Institute of Smart Cities ingelesez), aurrerantzean ISC, Iruñean eratu da Nafarroako Unibertsitate Publikoko, aurrerantzean NUP, Ikerketa Institutu bereki bat, Unibertsitateei buruzko Lege Organikoan, NUPeko Estatutuetan, Gobernu Kontseiluak 2014ko maiatzaren 27an onetsitako Ikerketa Institutuetako Araudiarekin bat (2014/06/12ko NAO), eta Arautegi honek ezarritakoarekin bat arautzen da.

## 2. artikulua. Xedea eta helburuak

3. ISCren funtsezko helburuak dira oinarrizko ikerketaren sustapena, berrikuntza teknologikoko ekimenak bultzatzera bideratua, enpresa ehunarekin lankidetzan jardutearen bidez. Era berean, ISCren funtsezko helburu gisa ezarri da berezkoak dituen ikerketa lerroetan erreferentziazkoa den ikerketa zentro bat eratzea, nazio mailan eta nazioartean, teknologian intentsiboak diren enpresa berriak erakartzeko, bai eta ikertzaile esperientziadunak eta prestakuntzan dabiltzan ikertzaileak erakartzeko gaitasunagatik.
4. Helburu horiek lortzeko xedez, lehentasunezko helburu hauek ezarri dira:
    h. Kalitatezko ikerketa sustatzea, bereziki ikerketaren alderdi zientifiko eta teknologikoak, eta haren izaera aplikatua azpimarratuz.
    i. Gizarteratzea, eta bereziki industria ingurunera, dauden teknologia aurreratuak eta Institutuan bertan garatzen direnak.
    j. Unibertsitateko baliabideak baliatzea, erabilgarria den azpiegitura elkarrekin erabiliz eta baliabide komunak lortzeko prozesuak eta laguntzeko zerbitzu partekatuen erabilera sustatuz.
    k. Osatzen duten ikertzaileen banakako eta taldeko ikerketa sustatzea, bereziki bere plan estrategikoetan definitutako lerroekin lotuta daudenak.
    l. Enpresekin lankidetza areagotzea ikerketan, garapenean eta berrikuntzan, Institutuaren arlo berekien barruan.
    m. Lankidetzan jardutea NUPeko beste ikastegi, sail, eta ikerketa institutu batzuekin, eta beste entitate publiko eta pribatu batzuekin, naziokoak edo nazioartekoak, bere eskumenen esparruan.
    n. Ikerketa jardueran kalitatezko erreferentzia bat sendotzea bai Nafarroan, maila nazionalean eta nazioartekoan.

## 3. artikulua. Esparrua eta eginkizunak

3. Jarduera esparrua oinarrizko ikerketa izango da, sorrerako oroitidazkian definitutako arlo edo lerro espezifikoetara bideratua.
4. Hauek dira ISCren eginkizunak:
    g. Ikerketa proiektuak definitzea eta gauzatzea kideen sinergiak baliatzen saiatuz, ikertzaileen eta taldeen arteko lankidetzaren bidez.
    h. Finantzaketa publikoa edo pribatua bilatzea, ikerketa lerroei eta proiektuak gauzatzeari eusteko, eta Institutuaren beraren funtzionamendurako.
    i. Definitzea, garatzea eta ebaluatzea bere ikerketa, garapen eta berrikuntza teknikorako planak, NUPeko ikerketa plan orokorrekin bat.
    j. Kontratuak egitea pertsona eta erakunde publiko nahiz pribatuekin legeria espezifikoan, NUPeko Estatutuetan eta horiek garatzen dituzten arautegietan ezarria dagoen bezala.

k. Unibertsitateak esleitzen dizkion aurrekontuaren eta baliabide materialen administrazioa.

l. Legearekin bat, Estatutuek eta Unibertsitateko beste arautegiek esleitzen dizkioten beste edozein eginkizun.

## 4. artikulua. ISCren konfigurazioa eta osaera

7. Institutuko kide izango dira hiru ikertzaile mota hauek:
   d. Ikertzaile berekiak
   e. Ikertzaile lankideak
   f. Prestakuntzan ari diren ikertzaileak
8. Ikertzaile berekiek NUPekin lotura iraunkorra duten irakasle eta ikertzaileak izan behar dute nahitaez. Frogatu beharko dute ikerketa jardueraren bi ebaluazio positibo dituztela gutxienez ere. Azken tarteak aktibo egon behar du.
9. Institutuko Ikertzaile Berekien gutxieneko kopurua 20 izango da. Seiurtekoen batez besteko kopurua, ikertzaile berekien kopuru osoari dagokiona, gutxienez 2,5 izango da.
10. Institutuari aurreko a) eta b) moduetan atxikitzen zaizkion ikertzaileek frogatu beharko dute ikerketa ibilbide egiaztatua daukatela Institutuaren jarduketa eremuan, edo hartan bukatzeko borondate argia.
11. Ikertzaile lankidetzat hartuko dira, ikertzaile berekiak izateko betekizunak eta irizpideak betetzen badituzte ere, maila horretakoak izateko aukerarik ez dutenak, maila horretan sartuko balituzte ikertzaile bereki bakoitzeko 2,5 seiurtekoko ratioa jaitsiko lukeelako. Institutuak guztira dituen seiurtekoen arabera, ikertzaile berekien mailan sartzeko aukera dutenean, eskaera aurkeztu behar dute, eta Institutuko Kontseiluak onetsiko du.
12. Prestakuntzan dauden Ikertzaileak Institutuari atxikiak egongo dira beren prestakuntza aldian, eta araudiak eskatutako betekizunak betetzen dituztenean, aukera izango dute Ikertzaile Berekiaren edo Ikertzaile Lankideen mailan sartzeko.

## 5. artikulua. Onartua izateko prozedura eta arauak

### Ikertzaile Berekientzat

14. Sorrerako oroitidazkian agertzen ez diren Ikertzaile Bereki berriak onartzeko, interesdunak eskaera egin behar du Institutuko idazkariari zuzendua, eta hor azalduko ditu gutxienez, bere curriculum vitaea eta txosten labur bat institutuan sartzeko daukan interesa justifikatzeko. Institutuaren zuzendariak bi ikertzaile berekiren txosten arrazoitua eta konfidentziala jasoko du, non erreferentzia esplizitua egingo den hautagaiaren profilaren egokitzapenari buruz ISCren ikerketa lerroekin.
15. Institutuko Kontseiluak onetsi behar du onarpen eskaera gehiengo soilaren bidez isilpeko bozketan, eskaera egiten den egunetik hiru hilabeteko epean gehienez ere, eta irizpide nagusia izango da curriculumaren egokitzapena Institutuaren ikerketa lerroetara.
16. Eskatzaileek ezinbestean bete beharko dituzte 4.2 artikuluan aipatzen diren baldintzak. Onartua izan eta gero, 4.3 artikuluak aipatzen duen betekizuna betetzen dutela egiaztatzen jarraituko du institutuak. Betetzen ez badu, eskatzailea zuzenean hartua izango da ikertzaile lankidea izateko, baldintzengatik Ikertzaile Berekitzat behin betikoz onartzeko moduan egon arte, eta hori hurrenkerari zorrotz jarraituz egingo da, baldintza berdinetan dauden hautagai batzuk baldin badaude.
17. Ikertzaile bereki batek institutuko kide izateari utziko dio bere borondatez –kasu horretan institutuko idazkariari jakinaraziko dio– edo Institutuko Kontseiluak isilpeko botazioan gehiengo

soilez onetsitako erabakiaren bidez. Halaber, institutuko kidea izateari utziko dio Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin lotura iraunkorra izateari uzten dion edo bere azken ikerketa tartea jada aktibo ez duen ikertzaile berekiak. Azken kasu honetan, ohiz kanpoko arrazoiak daudenean, hala nola baja bat gaixotasun luzeagatik, amatasunagatik edo eszedentziagatik, behin-behinean gutxienez ere urtebetez ikertzaile berekia izaten jarrai dezala erabakitzeko aukera izango du institutuaren Batzorde Betearazleak.

**Ikertzaile lankideak**

18. Ikertzaile lankide berriak onartzeko, interesdunak eskaera egin behar du Institutuko idazkariari zuzendua, eta hor gutxienez aurkeztuko ditu, bere curriculum vitaea eta txosten labur bat Institutuan sartzeko daukan interesa arrazoitzeko. Ikertzaile lankideek Nafarroako Unibertsitate Publikoko plantillako langileak izan behar dute nahitaez.
19. Ikertzaile lankide gisa onartua izateko, hautagaiak egiaztatu behar du ebaluazioa positiboa daukan ikerketa-tarte bat daukala gutxienez, aktibo egon behar du, eta ezin izan badu eskatu, azken sei urteetan etenik gabeko ikerketa jarduerari dagozkion merezimendu baliokideak dauzkala egiaztatu behar du. Gainera, izangaiaren curriculuma institutuko ikerketa lerroekin lotua egon behar da.
20. Institutuaren zuzendariak bi ikertzaile berekiren txosten arrazoitua eta konfidentziala jasoko du, non erreferentzia esplizitua egingo den hautagaiaren profilaren egokitzapenari buruz ISCren ikerketa lerroekin eta, beharrezkoa bada, aurkeztutako merezimenduen baliokidetza balioetsi behar da ikerketa jarduera ebaluatzeko seiurteko batekin.
21. Institutuko Kontseiluak onetsi behar du onarpen eskaera gehiengo soilaren bidez isilpeko bozketan, eskaera egiten den egunetik hiru hilabeteko epean gehienez ere.
22. Ikertzaile lankide batek institutuko kide izateari utziko dio bere borondatez –kasu horretan institutuko idazkariari jakinaraziko dio– edo Institutuko Kontseiluak isilpeko botazioan gehiengo soilez onetsitako erabakiaren bidez. Halaber, institutuko kidea izateari utziko dio Nafarroako Unibertsitate Publikoko plantillakoa izateari uzten dion edo bere azken ikerketa tartea jada aktibo ez duen ikertzaile lankideak. Azken kasu honetan, ohiz kanpoko arrazoiak daudenean, hala nola baja bat gaixotasun luzeagatik, amatasunagatik edo eszedentziagatik, behin-behinean gutxienez ere urtebetez ikertzaile lankide izaten jarrai dezala erabakitzeko aukera izango du institutuaren Batzorde Betearazleak.

**Prestakuntzan ari diren ikertzaileentzat**

23. Prestakuntzan dauden ikertzaileek Nafarroako Unibertsitate Publikoko doktoretza ikasleak izan behar dute nahitaez. Beren tutoreak edo zuzendariak ikertzaile berekia edo ikertzaile lankidea izan behar du.
24. Onarpen-eskaera, izangaiak egina eta institutuaren idazkariari zuzendua, bi ikertzaile berekik edo lankidek bermatu behar dute. Institutuko Kontseiluak onetsi behar du onarpen eskaera gehiengo soilaren bidez isilpeko bozketan, eskaera egiten den egunetik hiru hilabeteko epean gehienez ere.
25. Prestakuntzan dagoen ikertzaile batek institutuko kide izateari utziko dio bere borondatez –kasu horretan institutuko idazkariari jakinaraziko dio– edo Institutuko Kontseiluak isilpeko botazioan gehiengo soilez onetsitako erabakiaren bidez. Halaber, Institutuko kide izateari utziko dio Nafarroako Unibertsitate Publikoko doktoretza-ikasle izateari uzten dion prestakuntzako ikertzaileak.
26. Prestakuntzan dagoen ikertzaile batek doktore maila lortzen duenean, ikertzaile lankide izatea eskatzeko aukera du, eta horretarako aski du bere curriculuma aurkeztea, 5.7 artikuluak aipatzen dituen txostenak aurkeztu beharrik gabe. Tramite horiek egiteko, doktore titulua lortu duela-eta ikertzaile lankide izatea eskatzen duen prestakuntzako ikertzaileak Institutuko kidea izaten jarraituko du 6 hilabetez.

## 6. artikulua. Institutuko kideen eskubideak eta betebeharrak

**Institutuko ikertzaile guztien eskubideak hauek dira:**

f. Institutuak antolatzen dituen jardueretan parte hartzea.

g. Bere organoek, edo beste organo batzuek hartzen dituzten erabakien berri edukitzea, erabaki horiek Institutuko kide diren aldetik eragiten dietenean.

h. Jarduerak proposatzea Institutuaren jarduera lerroen barnean.

i. Institutuaren funtzionamendua hobetzeko kexak edo iradokizunak planteatzea haren organoei.

j. Institutuaren izena eta logotipoa erabiltzea argitalpenetan eta komunikazioetan.

Institutuko ikertzaile guztien betebeharrak hauek dira:

i. Bere ikerketa jardueraren garapenaren bidez, laguntzea Institutuaren helburuetan, eta haren prestigioan.

j. Ahalik eta lankidetza handiena lortzea Institutuko beste kide batzuekin, haren barnean egiten diren ikerketa proiektuetan edo jardueretan parte hartzeko.

k. Bere ikerketen emaitzak hedatzea bai esparru zientifiko teknikoan bai enpresa arloan eta gizartean.

l. NUP (edo Saila) eta Institute of Smart Cities filiazio bikoitza erabiltzea Institutuaren jarduera lerroen barnean egiten diren argitalpen eta lanetan.

m. Institutuko zuzendaritza taldeari ematea haiek beren jarduerei buruz eskatzen dieten informazioa.

n. Institutuan egiten diren ebaluazio prozesuetan parte hartzea.

o. Institutuko Kontseiluaren erabakiak onartzea.

p. Arautegi honetan eta Institutuaren lege esparrua osatzen duten gainerako arauetan ezarritakoa errespetatzea.

## 7. artikulua. Gobernu organoak

9. Institutuaren gobernu organoak dira Institutuko Kontseilua eta Institutuko zuzendaria.
10. Institutuko Kontseilua Institutuaren ohiko gobernu-organoa da, eta haren ikertzaile bereki guztiek osatuko dute. Eginkizun hauek ditu:
    a. Institutuaren zuzendariaren izendapena eta kargugabetzea errektoreari proposatzea.
    b. Institutuko kideen atxikipena eta atxikipena kentzea onestea.
    c. Onestea Urteko Jarduera Plana, Jardueren Oroitidazkia eta NUPeko araudian aurreikusitako alten eta bajen txostena.
    d. Institutuaren esparruan egiten diren ikerketa-lerroak onestea.
    e. Ikerketa jardueren, garapen, hedapen, zabalpen, aholkularitza eta berrikuntza zientifiko eta teknikoaren plangintza egitea.
    f. Onestea eta gauzatzea Institutuan egiten diren jardueren ebaluazioa.
    g. Jarduteko esleitzen zaizkion funtsen eta baliabideen xedea onestea.
    h. Funtzionamendu arautegia egitea.
    i. Unibertsitateko arauek esleitutako beste zenbait eginkizun.
11. Institutuko Kontseiluak Osoko Bilkuran edo Batzorde Betearazlearen bidez jardungo du, eta azken hau osatuko dute: Institutuko zuzendariak, zuzendariordeak, idazkariak eta institutuko bost ikertzailek, zuzendariak proposatuak eta Institutuko Kontseiluak bozketaren bidez izendatuak. Hauek dira Batzorde Betearazlearen eginkizunak:

a. Ikertzaile berekien onarpen-eskaerak ad cautelam onestea. Institutuko Kontseiluak egiten duen hurrengo bileran behin betiko onartuko dira eskaera horiek.
b. Ikertzaile lankideen eta Prestakuntzan dauden ikertzaileen onarpen-eskaerak ad cautelam onestea. Institutuko Kontseiluak egiten duen hurrengo bileran behin betiko onartuko dira eskaera horiek.
c. Txostenak egitea
d. ISCren Zuzendaritza Taldeari aholkularitza ematea.
e. Bileretan parte-hartzea ISCren izenean.
f. Presako gaietan erabakiak hartzea ad cautelam
g. Zuzendaritza Taldeak edo Institutuko Kontseiluak ematen dion beste edozein eginkizun

12. Institutuaren zuzendaria da institutua ordezkatzen duen pertsona, eta haren Kontseiluaren burua. Errektoreak izendatuko du Institutuko Kontseiluak proposatuta, bere ikertzaile berekien artean. Frogatu beharko du ikerketa jardueraren hiru ebaluazio positibo dituela gutxienez ere. Agintaldiak lau urteko iraupena izango du. Kontseiluak edo berak proposatuta utziko du kargua, jardunean egongo da zuzendari berri bat karguaz jabetzen den arte.
13. Institutuaren zuzendariak ikertzaile berekien artean izendatuko du institutuaren zuzendariordea, zuzendariari lagunduko diona, eta bera ordeztuko duena ez badago, edo gaixotasun bat badauka. Berak eskatuta, zuzendariak erabakita edo zuzendariorde izateko proposatu zuen zuzendariaren agintaldia amaitzean utziko du kargua. Jardunean egongo da zuzendariorde berriak kargua hartzen duen arte.
14. Institutuko zuzendariak ikertzaile berekien artetik Institutuko idazkaria izendatuko du. Berak eskatuta, zuzendariak erabakita edo zuzendariorde izateko proposatu zuen zuzendariaren agintaldia amaitzean utziko du kargua. Jardunean egongo da idazkari berriak kargua hartzen duen arte. Bere eginkizunen artean honako hauek daude:
    a. zuzendariari laguntzea eta honek esleitzen dizkion eginkizunak betetzea.
    b. Institutuko Kontseiluaren idazkaria izatea. Bileraren aktak idatziko ditu eta erabakien fede emango du.
    c. Egiaztagiriak ematea eta bere eskumeneko prozedurak tramitatzea.
    d. Institutuko Kontseiluaren erabakiei publizitatea ematea.
    e. Zuzendariak ematen dion beste edozein eginkizun.
15. lan taldeen ad-hoc sorrera erabakitzeko aukera izango du Institutuko Kontseiluak, Institutuaren jarduerarekin lotutako proposamenak eta txostenak egiteko xedez.
16. Kanpoko batzorde zientifikoen edo enpresa arlokoen sorrera erabakitzeko aukera izango du Institutuko Kontseiluak, Institutuaren funtzionamenduari buruzko aholkularitza eman dezaten.

### 8. artikulua. Institutuko Kontseiluaren bilerak

Institutuko Kontseilua honelakoetan bilduko da:

3. Ohiko bileran gutxienez sei hilabetean behin, eta arautegi honetako 5. artikuluan ezarritakotik eratorritako jarduketak betetzeko beharrezkoak diren aldietan.
4. Ohiz kanpoko bileran, presazkoak diren kasuetan.

### 9. artikulua. Bileretarako deiak

4. Institutuko Kontseiluaren bileretarako deialdia haren zuzendariari dagokio.
5. Deialdia jakinaraziko zaie Kontseiluko kideei 5 egun baliodun lehenago, ohiko bilera denean, eta

gutxienez 48 ordu lehenago, ohiz kanpoko bileren kasuan. Orduetan ezarritako epeari dagokionez, zenbaketatik kanpo gelditzen dira igandeak eta jaiegunak.

6. Jakinarazpena organoko kideak deialdiaren edukia ikusi duela egiaztatzen ahal duen edozein modutara gauzatu behar da.

## 10. artikulua. Eguneko aztergaiak

6. Institutuko Kontseiluaren bileretarako deialdian beti adieraziko dira eguneko aztergaiak, Institutuko zuzendariak ezarritakoak, Kontseiluko gainerako kideek behar den aurrerapenaz egindako eskaerak kontuan hartuta, halakorik bada.
7. Bileretako eguneko aztergaietan puntu bat sartzea exijitu ahal izateko, eskaera sinatu beharko dute gutxienez kideen bosten batek.
8. Eguneko aztergaiak esplizituak, espezifikoak eta zehatzak izan behar dira, eta behar den informazioarekin batera azalduko dira.
9. Ohiko bileretako eguneko aztergaietan, azken puntu bezala, eskari-galderen atala agertu beharko da, eta bertan ezin izango da erabakirik hartu.
10. Ezin izango da erabaki eguneko aztergaietan agertzen ez den gairik, ez bada Institutuko Kontseiluko kide guztiak bertaraturik daudela, eta gehiengoaren aldeko botoen bidez gaiaren presakotasuna aitortzen dela.

## 11. artikulua. Saioetara joatea

Institutuko zuzendariak zilegi du Institutuaren bileretara edo puntu batzuetara gonbidatzea erabakietan inplikatuta dauden pertsonak, edo  intereseko informazioa daukaten pertsonak. Ikertzaile lankideak eta prestakuntzan dauden ikertzaileak ere gonbidatzeko aukera izango du.

## 12. artikulua. Eratze baliodun

4. Institutuko Kontseiluaren eraketa baliodun izango da, bilerak egin, eztabaidatu eta erabakiak hartu ahal izateko, lehen deialdian, baldin eta bertan badaude zuzendaria eta idazkaria, eta gainontzeko kideen erdiak, gutxienez.
5. Lehen deialdiarekin batera egingo den bigarren deialdian, lehenengoaren aldean gehienez ere ordubeteko epean, aski izango da zuzendaria, idazkaria eta Kontseiluko kideen heren bat bertaratzea.
6. Alabaina, Kontseilua eratuta geratuko da, deialdiaren baldintzak bete ez direnean ere, baldin eta kide guztiak bildurik badaude eta aho batez horrela erabakitzen dutenean.

## 13. artikulua. Erabakiak hartzea

3. Erabakiak gehiengo soilaz hartuko dira, araudiek bestelako gehiengoa eskatzen duten kasuetan salbu.
4. Erabakiak honela hartuko dira:
    a. Baieztapenaz, zuzendariak proposatuta, Kontseiluko inor honen aurka azaldu ez denean.
    b. Bozketa sinple eta jendaurrekoa.
    c. Isilpeko bozketaren bidez, indarreko araudiak hala eskatzen duenean eta zuzendariak hala erabakitzen duenean, berak edo Institutuko Kontseiluko kideren batek hala eskatuta.

## 14. artikulua. Bileren aktak.

5. Bilera bakoitzeko akta idazkariak egingo egingo du, eta bertan azalduko dira bildutakoen zerrenda, noiz eta non egin den bilera, eguneko aztergaiak, bozketak egiteko modua eta emaitzak, eta hartutako erabakiak eta ebazpenak.
6. Institutuko Kontseiluko kide guztiek eskubidea daukate aktan beren adierazpenak agerrarazteko, bileran hala eskatzen badute eta idazkariari idatziz ematen badizkiote, bilera amaitu aurretik, eta aktari erantsiko zaizkio.
7. Akten zirriborroak Kontseiluko kideei igorriko zaizkie hurrengo Kontseiluaren bilera egin baino lehen. Onetsitako aktak Institutuko kide guztien eskura egongo dira.
8. Kontseiluko edozein kidek aukera izango du exijitzeko akta bat osorik edo zati batean irakurria izan dadin. Aktaren onespena Kontseiluaren hurrengo bileran egingo da, presazko kasuetan izan ezik. Akta onetsi aurreko bozketa egin baino lehen  Kontseiluko kideek egin nahi dituzten zuzenketak, Kontseiluak onesten baditu, dagokion aktan sartuko dira, eta akta behin betiko izatera pasatuko da. Onartutako zuzenketak egin ondoren, Kontseiluaren onespenaren mende jarriko da akta.

## *Xedapen Gehigarria*

Arautegi honetan gaztelaniaz azaltzen diren maskulino generikoak bai gizonezkoei bai emakumezkoei dagozkiela ulertuko da.

## *Azken Xedapena*

Arautegi honek Nafarroako Unibertsitate Publikoko Gobernu Kontseiluak onetsi ondoren hartuko du indarra. Institutuko Kontseiluak onetsi behar ditu geroago egiten diren aldaketak, eta Unibertsitateko Gizarte Kontseiluari bidali behar zaizkio onar ditzan.